

Berripaperaren aurreko alean adierazi genuenez, laurhun urte dira aurten Migel Cervantesek *Don Quijote de la Mancha* argitaratu zuenetik. Mendeurren ospakizunak ere ez dira gutxi izango hemen eta munduan. Dena dela, *Don Kixote Mantxa'ko* ez ezik, beste lan bat ere ospatuko dugu aurten. Izan ere, laurhun urte dira Hegoaldeko euskarazko testu zaharrena ondu zuen **Joan Perez Lazarraga** (1550-1605) hil zenetik. Heriotza mendeurrena kari, hainbat ekitaldi burutuko dira aurten bertan, batean eta bestean.



Duela gutxi, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak esandako eskuizkribuaren edizio fak-simila aurkeztu eta banatu du.

ESKUIZKRIBU HORI Joan Perez Lazarragak, Larrea dorreko jaunak, XVI. mendearen bigarren herenean idatzitakoa da. Egileak Oñatiko euskara darabil eta gai profanoen gaineko koplak, bertsoak eta kontakizunak ontzen ditu bertan.



Zerbitzu berria abiarazi du Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren Euskara Planen Zuzendaritzak. **Sustraituz** du izena eta helburua, berriz, euskarak lan-munduan egiten dituen urratsei buruzko informazioa zabaltea.

Zerbitzua indarrean da eta ostegunero banatzen ditu albisteak. Enpresan eta, oro har, lan-munduan egiten ari den lanaren berri eman nahi izanez gero, edo zerbitzuari buruzko informazioa osoa jaso nahi izanez gero, jo ondoko helbidera: sustraituz@ej-gv.es.



Euskaraz ari diren zenbait jende eta talderen lana txalotzeko aukera izan dugu urteko lehen hilabeteetan. Hasteko, **Ortzadar Ipuin Lehiaketaren** irabazleen izenak ezagutu genituen: Arantza Etxebarria, *Nahiz bero kalma balego* ipuinagatik, eta Alvaro Rabelli *Enborren negarra*-gatik.

Handik egun batzuetara **Donostia Hiriko Literatur sarien** irabazleak jakinarazi zituzten. Modesto Arrieta, *Adelino Sousa* ipuinarekin, eta Joxean Sagastizabal, *Moskatel Team*, antzerki lanagatik, izan dira garaile.

Hurrena, *Argia* aldizkariak banatu zituen **Argia sariak**. Prentsa arloan Iñigo Aranbarrik jaso zuen *Berria* egunkarian argitaratzen duen *Hizlandia* sailagatik; Irratian, Euskalerrria Irratiko zuzendari den Mikel Bujandak jaso zuen, gidatzen dituen albisteen kalitateagatik; Merezimenduzkoa, Gorringo taldeak, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, antzezlanagatik; Internet saria, www.uztarria.com atariarentzat izan zen; Telebistakoa, Julian Iantzi aurkezlearentzat. Publizitatekoari dagokionez, eman gabe utzi zuten sarietako antolatzaileek.



4 O urte bete ditu Gerediaga kultur elkarteak,

Durango Liburu eta Disko Azokaren antolatzaileak. Sortzaileen artean dira J. Astigarraga, Ch. Astola, L. Zugaza, J. L. Lizundia, K. Altzibar, C. Astola, J. Berriozabalgaitia, B. Kapanaga, C. Miranda eta A. Salazar.

Elkarteak eskualdearen garapena du helburu, Durangaldea babestu eta bertako bizimodua hobetzea. Urtean zehar era askotako ekitaldiak burutzen ditu, hitzaldiak, argitalpenak, lehiaketak..., nahiz eta denetan nagusia Liburu eta Disko Azoka izan.



Estepan Urkiaga "**Lauaxeta**" poeta eta idazlearen jaiotza mendeurrena ospatuko da aurten. Hori dela eta, zenbait ekitaldi antolatuko dituzte Mungian, bizi zeneko herrian. Esaterako, "Lauaxeta 2005" egutegia argitaratu dute Mungian eta, horrez gainera, opera herrikoia ari dira prestatzen bertan, uztailaren emateko asmotan.

Lauaxeta (Laukiz, 1905-Gasteiz, 1937), XX. mende hasierako egilerik nagusienetakoa da. Poesiari bide berriak urratzeko ahaleginak ageri dira bere lanetan, *Bide barrijak* (1931) eta *Arrats beran* (1935). Haren biografia eta lanen berri zehatza, *Bidegileak* bilduman, www.euskara.euskadi.net helbidean.

ingeniaritza
ELEKA
linguistikoa

Itzulpen automatikoak egingo dituen sistema garatzen ari da Eleka. Ingeniaritza Linguistikoa lantzen duen enpresa honek kode irekiko eta banaketa libreko sistema garatzen dihardu. Sistema berriak estuak nahiz web guneak gaztelaniatik euskarara, galizieratik katalanera eta alderantziz itzuliko ditu. Honenbestez, Estatuko lau hizkuntza ofizialak kontuan hartuko dituen lehenengo sistema izango da Eleka enpresaren hau.

Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearen eta Elhuyar Fundazioaren laguntza du Elekak.



Mamutxen Eremua, sakelako telefono-entzako euskarazko lehen jolas aurkeztu du Animatu enpresak. Jokalariak izaki mitologiko jakinak, Mamutxak, aurkitu beharko ditu telefono pantailan, parran tokatuko zaizkion pertsonajeen laguntzaz; topatzen dituenean, argazkia egin beharko die.

Sakelakoentzako jolas honek Kultura Sailaren laguntza izan du.



Berripapera-ren irakurle-ek ongi ezagutzen duten pertsonajea ageri da aurten Sabino Arana Kultur Elkargoak saritu dutenen artean: **Karmele Goñi**. Tolosan jaiotako etnografoak "Bizitza osoko ibilbidea" arloan jaso zuen saria, euskal kulturaren alde egin duen lan handia goratzeko asmotan.

Karmele Goñiren biografiaren eta lanen berri izateko, jo *Bidegileak* bildumara, www.euskara.euskadi.net ohiko helbidean.



Euskara gizarte-esparruak irabazi nahian dabil azken urte hauetan. Horieta bat, lan-mundua, eremu estrategikoa da euskararen etorkizuna bermatu nahi bada. Hainbat erakunde eta enpresak heldu diote erronka horri, eta euskararen normalizazio planak abian jarri. Oraindik orain, bide horretatik jotzeko erabakia hartu dute Buruntzaldean: Lasarte-Oriako, Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Urnieta eta Usurbilgo udaletako euskara-zerbitzuek **lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko plana** egin dute herri bakoitzean euskara-plana diseinatu eta inplementatuko duten bi edo hiru esperientzia pilotu abian jartzeko.



Mendebalde Kultura Alkartea IX. Jardunaldiak aurkeztu ditu. Maiatzaren 6 eta 7an egingo dira Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien aretoan, **"Euskara: normalizaziozko homologazina"** lemapean. Jakinarazi dutenez, Joseba Intxausti omenduko dute aurten.

Bizkaierak euskara batuari eskaini liezaiokeen ondarea ikertzea eta indartzea du helburu Mendebalde Kultura Alkartea, bai eta mendebaldeko euskararen corpus eta estatusa zaintzea ere.


Berri gehiago, elkartearen web gunean, www.mendebalde.com helbidean.



Dulantziko (Araba) udalak erabaki berri duenez, diruz lagunduko du herriko **saltegieta euskarazko erro-tulazioa**. Erabakiaren arabera, saltegieta olanak, merkataritzarako ibilgailuen erro-tulak, denda, jatetxe, ostatu eta elkarteetako mezu eta agerraldiak euskaraz ere jartzen lagunduko du udalak.



Aro berri bati ekin dio **Zabalik astekariak**. Azal eta mamiz, erabait berri du bere burua. Tamainaz txikiagoa da, eta askoz zainduagoa du diseinua. Edukiei dagokienaz, are eta gehiago opa diote asteburuari: musika emanaldiak, dantza jaialdiak, antzerkia, erakusketak, kirola, zinema, hitzaldiak, lehiaketak eta gainerakoak arreta bereziko gaiak izango dira *Zabalik* berrituan.



Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) XV. jardunaldien berri eman du. Maiatzaren 6 eta 7an egingo dira, Iruñean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitzan. **Adimen osasuna: oztipoak gaintzen** lemapean, hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta tailer egingo dira. Jardunaldiak burutzeko, berriz, Mariasun Landa idazlearen hitzaldi irekia eta OEEren Batzar Nagusia iragarri dituzte antolatzaileek.



Orain arte, Euskal Herriari buruzko datuak iturri ezberdinetan bildu behar izan dira. Instituzio eta administrazio publikoak, lan munduko erakundeak, unibertsitateak eta ikerketa erakundeak aspaldi ari dira arlo sozio-ekonomikoa aztertzen. Dokumentazio eta azterketa asko egin dira, baina ikuspegi oso eta integratua falta izan da. Hutsune hori betetzeko, atari berri bat jarri da martxan: www.datu-talaia.net.

Euskal Herriari buruzko informazio zehatza, demografiaren, lurraldeen eta biztanleen, ekonomia- eta gizartearen, euskararen eta hezkuntzaren inguruko datuak ageri dira bertan.



Euskarazko berriei hornitutako web atariaren eta aldizkari elektronikoen saila aberastuz doa egunetik egunera. Oraintsu, bi dira aurretiaz sortutako enpresen zerrindari erantsi beharrekoak: www.zuredirua.com eta www.gaurkoenpresa.com.

Vocento Mediatrader enpresak egin ditu biak. Lehenak ekonomia eta finantzari buruzko informazioa dakar eta, bigarrenak, aldiz, teknologia berrien zein euskal enpresen gaineko zehaztasunak eskaintzen ditu.

euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA

Urtarrileko Berripaperean euskara hutsez egindako prentsa idatziari buruzko egoeraren nondik norakoak jorratu genituen. Oraingoan beste horrenbeste egingo dugu euskarazko aldizkari berezituekin.

Gaur irakurleak bere irakurzaletasun-grina euskaraz asetzeko era eta gai askotako aldizkariak ditu irakurgai. Aldizkari batzuk dibulgaziozkoak dira eta beste batzuk espezializatuak. Gehienak euskara batuan idatzitakoak dira. Maiztasun aldetik, gehienak hilabetekariak eta hiruhilabetekariak dira. Aldizkari gehienak kultur elkarteek kaleratutakoak dira eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen dute. Gazteek eta umeek badituzte berriaz haiei begira egindako aldizkariak (*Matraka, Xirika, Gazteberri, Pika, Txikitto, Karramarro, Karramarro txiki, Nanai*). Guztiak paperean editatzen badira ere, banaka batzuek Interneten ere eskaintzen dituzte beren aldizkariak (*Aizu!, Elhuyar, HABE, Bat, Bertsolari, Uztaro*).

Ikus dezakegunez, aldizkari-eskaintza oparoa eta anitza da, inoiz euskaraz izan den handiena; orain irakurlearen esku dago aldizkari horiek irakurtzea.

Hona hemen, hutsune edo okerrik ezean, esandako aldizkarien nondik norako laburra:

Maiztasun jakinik gabea
<i>Euskera</i> (hizkuntzalaritza)
<i>Euskerazaintza</i> (euskara)
<i>Idatz eta Mintz</i> (literatura)
<i>Kalegats</i> (literatura)

Hilabetekaria
<i>Aizu!</i> (euskara/kultura)
<i>Bertsozale</i> (bertsolaritza)
<i>Elhuyar</i> (zientzia)
<i>Ereinkaria</i> (literatura)
<i>Gazteberri</i> (gazteak)
<i>HABE</i> (euskara/kultura)
<i>Hik Hasi</i> (hezkuntza)
<i>Ikastola</i> (hezkuntza)
<i>Kalegorria</i> (politika)
<i>Luma</i> (denborapasa)
<i>Nabarra</i> (historia/politika...)
<i>Pika</i> (haur literatura)
<i>Txikitto</i> (umeak)
<i>Zer</i> (euskara/kultura)

Urtekaria
<i>Senez</i> (itzulpengintza)
<i>Uztaro</i> (gizarte zientziak)



Astekaria
<i>Matraka</i> (Berriaren gehigarria, gazteak)
<i>Xirika</i> (Gararen gehigarria, gazteak)

Lauhilabetekaria
<i>Baikara</i> (hezkuntza)
<i>Zehar</i> (arteak)

Hiruhilabetekaria
<i>Aisia biziz</i> (aisia)
<i>Bat</i> (soziolinguistika)
<i>Bertsolari</i> (bertsolaritza)
<i>Egan</i> (literatura)
<i>EKA</i> (kontsumoa)
<i>Euskal Herriko natura</i> (natura)
<i>Hemen</i> (erlijioa)
<i>Hizpide</i> (euskalduntze-alfabetatzea)
<i>Jakin</i> (pentsamendua)
<i>Karmel</i> (pentsamendua)
<i>Karramarro</i> (haurrak)
<i>Karramarro txiki</i> (haurrak)
<i>Nanai</i> (haur-literatura)
<i>Ostiela!</i> (literatura)

Bihilabetekaria
<i>Entzun</i> (musika)
<i>Ipurbeltz</i> (komikia)
<i>The Balde</i> (kultura; elebiduna)



Zilarrezko ezteiak ospatuko diturten **Araba Euskaraz** ikastolen jai handiak. Ekainaren 19an izango da, Amurrioren, "Ekiozu bideari" lemapean. Aresketa

Ikastolarentzat dirua biltzea izango du helburu. Haur Hezkuntzarako gela berriak eta jolasleku estalia eraikitzeko.

Araba Euskaraz Amurriora joango den hirugarren aldia izango da, 1986ko eta 1996ko jaiak ere bertan ospatu baitzituzten Arabako ikastolek.



Elbira Zipitria euskarazko irakaskuntzaren aitzindariaren bizitza eta lanak biltzen dituen liburua argitaratu berri dute Resu Abasolok, Juana Lopez de Munainek eta

Arantxa Urbek. **Ilunetik argira: Elbira Zipitria** darama izenburu eta lehenengo andereñoa ezagutu zutenen hitzak, genealogia, klandestinitate-kontuak eta beste ageri dira Hik Hasi pedagogi elkarteak argitaratu duen liburu mardulean.



2005eko kultur egitasmoa aurkeztu du Iparraldeko Iparraldeko EKEk (Euskal Kultur Erakundea). 803.000 euroko aurrekontua izango du eta 54 elkarte eta 78 ekimen lagunduko ditu

diruz. Besteak beste, kultur ohituren gaineko inkesta, hainbat erakusketa, ondareari buruzko ikerketa eta zenbait artistari buruzko ikusgarriak sustatuko ditu. Egitasmoa aurkeztearekin batera, Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmen bat egin beharra dagoela azaldu zuen EKEk.



Etengabeko ikaskuntza bultzatzen duen atari berri bat sortu da: **www.hiru.com**. Hauek dira web berriaren atal nagusiak: Gaiak, Hobeto bizi eta Aisia, eta, horien ondoren, hizkuntza ikastaroak (ingeleza, frantsesa, italiara eta alemana) burutzeko gunea. Gainera, efemerideak, euskal kulturari buruzko jakingarriak, etengabeko ikaskuntzaren liburu zuria eta bestelako berri asko ageri da, egunero, gune berri honetan.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), EJI Erekin lanikidetzan, euskara teknologia berrietan integratzeko aspaldian abian jarritako ildoari jarraituz, "BDP Táctil" izeneko softwarea euskarara lokalizatu du.

Software hori merkataritza-alorrean erabiltzen da eta honako programa hauek ditu: Ostalaritza, Etxera eramateko zerbitzua, Diskotekak, Dendak orokorra, Dendak fakturazioarekin, Okindegiak eta gozotegiak, Neurria eta kolorea, Ile-apaindegiak eta estetika, Hotelen kudeaketa integrala eta Etiketak.

Itzulpen-lanak UZEIk egin ditu eta HPSk gainbegiratu ditu. Gaztelaniazko lizentzia duenak euskarazko bertsioa eskura dezake doan.

Produktuari buruzko informazioa <http://www.bdp-center.com/> helbidean duzu eta, erosi nahi izanez gero, 902 29 19 09 telefonora (handizkaria) dei dezakezu.



Urteak dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak euskal ikasmateriazko materialak ekin ziona, EIMA programaren bidez, besteak beste. Sortutako ikasmaterialek hizkuntzako egokitasun-azterketa gaitasun behar izaten dute, hizkuntza-irizpide jakin batzuen arabera. Horri dagokionez, Sailak aspaldikoa du eskola-materialen *Estilo Liburu* osatzeko asmoa eta, oraindik orain, urrats bat aurrera egin du bide horretan *Ortotipografia liburu* argitaraturik. Lan honetan, ortografiako eta tipografiako zeinuen erabilera arauak zehazten dira puntuz puntu: Letrakera arrunta, Letrakera etzana, Letrakera lodia, Kakotxak, Siglak, Bibliografia nola aipatu, eta abar.

Liburu hau sail bateko lehena da, abian baitira beste zenbait txosten eta argitalpen (*Erdarazko egituren kalkoak*, *Morfosintaxia*, *Onomastika* eta abar).



Euskal Herriko historiari buruzko entziklopedia kaleratu du Lur argitaletxeak *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos* izenburupean. Ikerketa lanean UPV-EHUko, NUPeko, Deustuko Unibertsitateko eta Bordelako Unibertsitateko 45 irakasle eta adituk hartu dute parte Joseba Agirreazkuenagak gidaturik.

Lana sei liburukitan dago banaturik eta gaztelaniaz ikusi du argia lehenengo. Hala ere, euskarazko edizioa udazkenean kaleratzeko asmoa du argitaletxeak.



Interneten eragina gero eta arlo gehiagotan aritza nabarmentzen. Horri dagokionez, urte batzuk badira Internet hizkuntzen ikaskuntzara heldu zenetik. Harrezkero, on-line ikastaroak ohiko bihurtu dira eta, teknologia berriek euskararen normalizazioan izan dezaketean abantailaz jabeturik, euskara ikasteko tresna ere bihurtu da Internet.

Bide horretan, **euskaraz trebatzeko lehen on-line ikastaroa** prestatu du Monpas euskaltegiak, lau ataletan banaturik: Araugintza, Idazkuntza, Lagun arteko hizkera: Gazte hizkera, Laneko hizkera, eta Hika/noka hizkera.

Berri gehiago www.monpasberri.com atarian.



Otsailaren 27an erbestetik iritsi zen berri ituna: **Nikomedes Iguain Azurza**, Buenos Airesko Eusko Kultur Etxeko zuzendaria hil zen Argentinako hiriburuan.

1927an Beasainen jaioa, Argentinara jo zuen Espainiako Gerla Zibila eta gero, 1952an.

Argentinara orduko saiatu zen euskal kulturaren alde. Berak asmatu, sortu eta zuzendu zuen, hil arte, Eusketxe edo Eusko Kultur Etxea. Juan de Garai Fundazioaren eta Mercedeseko Euskal Anaitasunako sortzaileetakoa izan zen, eta euskal etxe gazte askoren bultzatzaile.

Irakasle izan zen, eta idazle. Musikagile eta organojoale. Eta, batez ere, euskaltzale handia.

Goian bego.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es